EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1

Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Internet
www.euskadi.net

Franqueo concertado: 8/98

Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1

Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

# Bestelako Xedapenak

**KULTURA SAILA**

**Zk-2942**

AGINDUA, 2003ko apirilaren 23koa, Kultura sailburuarena, Euskal kirol selekzioen kirol lehiaketak finantzatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak dioenez, botere publikoen printzipio artezkarietako bat da Euskal kirola estatuan nahiz nazioartean defendatzea. Lege horren 4. artikuluari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagokie euskal federazioei laguntza eta finantziazioa ematea, horrela, funtzio publikoak beteko dituztela bermatzen da; funtzio horietako bat kirol selekzioen bidez kanpoan ordezkaritza lortzea da.

Agindu honen bidez, Euskal kirol selekzioei laguntza ekonomikoa eman nahi zaie. Ildo horretatik, diru-laguntzak emango dira euskal selekzioek nazioarteko lehiaketetan parte har dezaten eta Euskal kirol selekzioak partaide izango dituzten nazioarteko kirol-lehiaketak antola daitezen.

Ondorioz, hauxe,

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

**N°-2942**

ORDEN de 23 de abril de 2003, de la Consejera de Cultura, por la que se establece el régimen de concesión de subvenciones para financiar las competiciones deportivas de las selecciones deportivas vascas.

La Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, incluye entre los principios rectores de la actuación de los poderes públicos el apoyo al deporte vasco en el ámbito estatal e internacional. Asimismo, el artículo 4 del citado texto legal establece que corresponde a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco la asistencia y financiación a las federaciones deportivas vascas para garantizar el cumplimiento de sus funciones públicas, entre las que se encuentra la representación exterior a través de sus selecciones deportivas.

La presente Orden trata de materializar, en la vertiente económica, el cumplimiento de dichos deberes de apoyo respecto a las selecciones deportivas vascas, estableciendo un programa de subvenciones que contribuya a fomentar la participación de las selecciones deportivas vascas en competiciones deportivas internacionales y la organización de competiciones deportivas internacionales en las que intervengan las selecciones deportivas vascas.

En su virtud,

PAPER BIRZIKLATUA %100 PAPEL RECICLADO 100%

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Helburua.

1.– Agindu honen bidez, Euskal selekzioek nazioarteko lehiaketetan parte har dezaten eta Euskal kirol selekzioak partaide izango dituzten nazioarteko kirol-lehiaketak antola daitezen emango diren diru-laguntzak arautzen dira.

2.– Horretarako, 450.760,00 (laurehun eta berrogeita hamar mila zazpiehun eta hirurogei) euro emango dira guztira.

3.– Eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, diru-laguntza hauetarako ezarritako zenbateko globala aldatu ahal izango da, baldin eta Kirol Zuzendaritzaren beste programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontuetako izakinak agortu ez badira. Aldaketa hori eskabideei buruzko erabakia hartu aurretik egin beharko da.

4.– Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da eta diru-laguntzak eman baino lehen, eskariak erkatu eta lehentasun ordena ezarriko da, 7. artikuluan ezarritako balorazio irizpideen arabera. Laguntza bakarrik balorazio handiena lortu duten eskabideei emango zaie.

*2. artikulua.–* Onuradunak.

1.– Euskal kirol federazioek jaso ditzakete agindu honetan arautukako diru-laguntzak, baldin eta aginduak ezarritakoa betetzen badute, euren estatutuak urriaren 9ko 265/1990 Dekretuari (kirol federazioen eraketa eta funtzionamendua arautzen dituena) egokituta badituzte, Kirol Entitateen Erregistroan izena emanda badaude eta gobernu organoak eratu badituzte, estatutu eta indarreko legeriaren arabera.

2.– Ezingo zaizkie diru-laguntza hauek eman zigor edo itzulketa prozeduraren bat abiarazita duten erakundeei, baldin eta EAEko Administrazio Orokorreko diru-laguntzen markoan hasi eta oraindik ere tramitepean badaude. Hori dela eta, diru-laguntza eman baino lehen, kontuan izan beharko da onuradun izan daitekeen erakundea zigor edo itzulketa prozeduren tramitepean dagoen ala ez.

3.– Agindu honetan arautukako diru-laguntza jaso arren, onuradunak beste erakunde publiko zein pribatu batek emandako diru-laguntza ere jaso dezake helburu berbererako, nolanahi ere, erakundeak ezingo du inola ere gehiegiko finantziaziorik izan; halakorik gertatuz gero, ez zaio diru-laguntza emango, eman bazaio itzuli egin beharko du edo gutxitu egingo zaio, aurkeztutako aurrekontuarekin parekatzeraino.

*3. artikulua.–* Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

Diruz lagundu ahal izango dira 2003. urtean gauzatzen diren jarduera hauek:

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

1.– Es objeto de la presente Orden determinar el régimen de subvenciones para financiar la participación de las selecciones deportivas vascas en competiciones deportivas internacionales y la organización de competiciones deportivas internacionales en las que intervengan las selecciones deportivas vascas.

2.– A este fin, durante el año 2003, se destinará un total de 450.760,00 (cuatrocientos cincuenta mil setecientos sesenta) euros.

3.– El importe global consignado podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas de la Dirección de Deportes y con carácter previo a la resolución de las mismas.

4.– La presente convocatoria se resolverá por el procedimiento de concurso y la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre ellas atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 7.

*Artículo 2.–* Entidades beneficiarias.

1.– Podrán acogerse a las subvenciones previstas en esta Orden las federaciones deportivas vascas que, cumpliendo lo establecido en esta Orden, hayan adaptado sus Estatutos al Decreto 265/1.990, de 9 de octubre, por el que se regula la constitución y funcionamiento de las federaciones deportivas, estén debidamente inscritos en el Registro de Entidades Deportivas y estén dotadas de sus correspondientes órganos de gobierno, de acuerdo con sus estatutos y la legislación vigente.

2.– No podrán concederse estas subvenciones a aquellas entidades a las que se les haya incoado algún procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se halle todavía en tramitación. Por ello, la concesión y, en su caso, el pago, de las subvenciones a los beneficiarios de éstas quedará condicionado a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que se halle todavía en tramitación.

3.– La percepción de las subvenciones establecidas en la presente Orden es compatible con cualquier otra que, destinada al mismo objeto, pudiera otorgar cualquier entidad pública o privada al mismo beneficiario sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, procediéndose en tal caso, al no abono, reintegro o reducción de la subvención hasta el equilibrio del presupuesto presentado.

*Artículo 3.–* Actividades subvencionables.

Podrán ser objeto de subvención las actividades siguientes a realizar durante el año 2003:

a) Euskal kirol selekzioek kategoria absolutuko nazioarteko kirol selekzioen lehiaketetan parte hartzea.

b) Euskal selekzioak kategoria absolutuan partaide izango dituzten nazioarteko kirol selekzioen lehiaketak antolatzea.

*4. artikulua.*– Eskaerak.

1.– Agindu honetan ezarritako diru-laguntzak jasotzeko eskariak Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzari zuzenduko zaizkio eta Kultura Saileko Kirol Zuzendaritzan edo kasuan kasuko Kulturako Lurralde Zerbitzuetan aurkeztuko dira, onuraduna zein lurralde historikotan kokatuta dagoen kontuan izanik. Eskariak zuzenean aurkez daitezke, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako bideetatik edozein erabiliz. Ondoko dokumentuak erantsiko zaizkie eskariei:

a) Eskaera inprimakia. Kirol Zuzendaritzak emango ditu inprimaki horiek, bai zuzenean, bai Araba, Bizkaia edo Gipuzkoako Lurralde Zerbitzuen bitartez. Erakundeko ordezkariak izenpetuko du eskaera.

b) Diruz lagun daitezkeen jarduera edo programen memoria azaltzailea eta egutegia.

c) Diruz lagun daitekeen programa edo jardueraren aurrekontu banakatua.

d) Erakunde onuradunak eskatu eta jasoko dituen edo jaso ditzakeen beste diru-laguntzak. Zein erakundek (publiko nahiz pribatuk) emango dizkion adieraziko da, baita eskaeraren egoera ere (ea ukatu zaion, ebazteke dagoen, eman zaion, zenbatekoa eta abar). Ez badu diru-laguntzarik eskatu, egiaztagiria aurkeztuko du programa horretarako beste diru-laguntzarik jaso ez duela adieraziz.

e) Erakunde eskatzailearen IFZaren kopia.

f) Zerga betebeharrak ordaindu dituela adierazten duen egiaztagiria. Egiaztagiri horrek diru-laguntza eskatu baino hiru hilabete lehenago emana izan behar du gehienez.

g) Erakunde eskatzailearen gobernu organoak frogatuko du jarduera edo programako publizitate eta dokumentuetan (korrespondentzia, kartelak, foiletoak, megafonia eta abar) EAEko hizkuntza ofizialak erabiltzeko konpromisoa hartu duela.

h) Jarduera edo programa hori beste erakunde publiko nahiz pribatuekiko lankidetza hitzarmen baten bidez egiten bada, lankidetza hitzarmen edo kontratuaren kopia ere erantsiko da. Kasu horretan, diru-laguntza eskatu ez duen erakundeari aurreko idatz-zatietan jasotako dokumentuak eska dakizkioke.

a) Participación de las selecciones deportivas vascas en competiciones internacionales de selecciones deportivas en categoría absoluta.

b) Organización de competiciones deportivas internacionales de selecciones deportivas en las que intervenga la selección deportiva vasca en categoría absoluta.

*Artículo 4.*– Solicitudes.

1.– Las solicitudes para acogerse a las subvenciones establecidas en la presente Orden se dirigirán a la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes del Departamento de Cultura y se presentarán en la Dirección de Deportes del Departamento de Cultura o en los Servicios Territoriales de Cultura que corresponda, en función del Territorio Histórico donde se ubique la entidad beneficiaria, bien directamente o bien por cualesquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, acompañadas de la documentación siguiente:

a) Impreso de solicitud que a tal efecto será facilitada por la Dirección de Deportes, ya directamente, ya a través de los Servicios Territoriales de Cultura de Álava, Bizkaia o Gipuzkoa. La solicitud será suscrita por el representante de la entidad.

b) Memoria descriptiva del programa o actividad a subvencionar y calendario de la misma.

c) Presupuesto desglosado de gastos e ingresos del programa o de la actividad a subvencionar.

d) Relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas o que estime recibir la entidad beneficiaria, con mención a la entidad, pública o privada, que la otorgue, así como estado de la misma (denegada, pendiente de resolución, concedida, importe, etcétera). Caso contrario, deberá presentar documento declarativo de no haber solicitado o percibido otra subvención para el programa presentado.

e) Fotocopia del N.I.F. de la entidad solicitante.

f) Certificado actualizado de hallarse al corriente en el pago de las obligaciones tributarias. Tal certificación deberá haber sido emitida con no más de tres meses de antelación a la fecha de solicitud de la subvención.

g) Compromiso adquirido por el órgano de gobierno de la entidad solicitante de utilizar las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca en el desarrollo del programa o actividad objeto de la subvención en lo concerniente a publicidad y documentación (correspondencia, carteles, folletos, megafonía, etcétera)

h) En el supuesto en que el programa o actividad se realice mediante convenio de colaboración con otras entidades públicas o privadas, se adjuntará copia del convenio o contrato que respalde la referida colaboración. En este caso, podrá requerirse, respecto a la entidad no solicitante de la subvención, la documentación que en apartados precedentes se establece.

i) Erakunde eskatzaileari eskaera baloratzeko komenigarri iruditzen zaion beste edozein dokumentu.

2.– Diru-laguntza eman baino lehen, Kirol Zuzendaritzak beharrezko deritzen dokumentu edo zehaztapenak eska ditzake.

*5. artikulua.–* Eskaerak aurkezteko epea.

Hilabeteko epea dago, agindu honek ondorioak sorrarazi eta hurrengo egunetik, eskaerak aurkezteko.

*6. artikulua.–* Eskaeretan eginiko akatsak zuzentzea.

Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak akatsen bat edo zehaztasun eza aurkituko balu eskaeran bertan edo agindu honen 4. artikuluan jasotako dokumentuetan, erakunde eskatzaileari jakinaraziko dio eta hamar egun balioduneko epea emango dio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik, akatsa edo zehaztasun eza konpontzeko. Epea igaro eta interesatuak ez badu dagokion zuzenketa egin, uko egin diola ulertuko da, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak emandako ebazpen baten bidez.

*7. artikulua.–* Puntuazio irizpideak.

1.– Esan bezala, diru-laguntzak emango dira euskal kirol selekzioek kategoria absolutuko nazioarteko lehiaketetan parte har dezaten eta euskal kirol selekzioak partaide izango dituzten nazioarteko lehiaketak antola daitezen. Horretarako, ondoko puntuazio-irizpideak erabiliko dira:

a) Lehiaketaren ezaugarriak kontuan izanik (ofiziala edo lagunartekoa), 100 puntu gehienez ere.

Puntu gehiago emango zaizkie lehiaketa ofizialei lagunartekoei baino.

b) Lehiaketa maila kontuan izanik (Munduko Txapelketa, Europako Txapelketa eta abar), 100 puntu gehienez ere.

Maila zenbat eta handiagoa izan, puntu gehiago emango zaio lehiaketari.

c) Lehiaketaren kirol maila kontuan izanik, 100 puntu gehienez ere.

Kirol maila zenbat eta handiagoa izan, puntu gehiago emango zaio lehiaketari.

d) Lehiaketak gizarte alorrean duen eragina kontuan izanik, 100 puntu gehienez ere.

Puntu gehiago emango zaizkie gizarte alorrean eragin handiagoa duten lehiaketei.

i) Cualquier otra documentación complementaria que la entidad solicitante desee presentar al efecto de valorar la solicitud.

2.– La Dirección de Deportes podrá exigir cuantos documentos o aclaraciones estime necesarias para la concesión de la subvención.

*Artículo 5.–* Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día que surta efectos la presente Orden.

*Artículo 6.–* Subsanación de defectos de las solicitudes.

En el supuesto de que, analizada por la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco, la solicitud y demás documentación requerida de conformidad a lo previsto en el artículo 4.º de la presente Orden, se observara la existencia de defectos o la documentación fuera incompleta, se pondrá en conocimiento de la entidad solicitante tal circunstancia, otorgándose un plazo de diez días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación correspondiente, para su subsanación, transcurrido el cual, sin haberse procedido a la misma, se le tendrá por desistida, mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

*Artículo 7.–* Criterios de cuantificación.

1.– Para la concesión de las subvenciones por la participación de las selecciones deportivas vascas en competiciones internacionales de categoría absoluta y para la organización de competiciones deportivas internacionales en las que intervenga la selección deportiva vasca, la puntuación se otorgará en base a los siguientes criterios:

a) Por la naturaleza (oficial o amistosa) de la competición hasta 100 puntos.

Se otorgará una mayor valoración a las competiciones deportivas oficiales que a las competiciones de carácter amistoso.

b) Por el rango de la competición (Campeonatos del Mundo, Campeonatos de Europa, etcétera) hasta 100 puntos.

Las competiciones deportivas de mayor rango obtendrán mayor puntuación que las competiciones deportivas de rango inferior.

c) Por el nivel deportivo de la competición hasta 100 puntos.

Las competiciones deportivas de mayor nivel deportivo obtendrán mayor puntuación que las competiciones de menor nivel deportivo.

d) Por el impacto social de la competición hasta 100 puntos.

Se otorgará una mayor puntuación a las competiciones que tengan un mayor impacto social.

2.– Diru-laguntzen zenbatekoa aurkeztutako aurrekontuaren %100era irits daiteke.

*8. artikulua.*– Kalifikazio batzordearen osaera eta ebazteko prozedura.

1.– Aurkeztutako eskaera eta dokumentuak aztertu ondoren, kalifikazio batzordea eratuko da. Batzorde horretako kideak honakoak izango dira: Kirol zuzendaria, batzordeko lehendakari izango dena, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak izendaturiko bi kirol-teknikari; horietako bat idazkaria izango da. EHAAn argitaratuko da kalifikazio batzordearen eraketa.

2.– Kalifikazio batzordeak ebazpen proposamen arrazoitua egingo du esleipen-irizpideen arabera eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari bidaliko dio.

3.– Kalifikazio Batzordeak programa edo jardueretarako diru-laguntzarik ez ematea edo agindu honetan jasotako aurrekontu zuzkidura osorik ez erabiltzea erabaki dezake, baldin eta eskariek nahikoa kalitaterik ez badute edo beharrezko baldintzaren bat bete ez badute.

4.– Ebazpen-proposamena ikusita, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak laguntzaren zenbatekoa zein den adieraziko du ebazpen baten bitartez.

5.– Ebazpena jakinarazteko epea lau hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita. Gehieneko epe hori amaitu eta ez bada ebazpenik eman, eskaera ezetsitzat jo daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 44. artikuluari jarraiki; nolanahi ere, lege horrek ebazpena ematera behartzen du administrazioa.

6.– Aurreko paragrafoa gorabehera, agindu honen 6. artikulua aplikagarri denean, ebazpena emateko epea eten egingo da izapide horrek dirauen bitartean, hau da, jakinarazpena egiteko eta horri erantzuteko behar den denboran.

7.– Agindu honen babespean emandako diru-laguntzen onuradunei banan-banan jakinaraziko zaie diru-laguntza eman zaiela; hala ere, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpena EHAAn argitaratuko da.

*9. artikulua.*– Onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan arautUtako diru-laguntzaren onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Diru-laguntza onartzea. Ildo horretatik, diru-laguntza emateko jakinarazpena jasotzen den egunetik hasita, hamabost eguneko epean, erakunde onuradunek diru-laguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartu dutela ulertuko da.

2.– Las subvenciones podrán alcanzar el 100% del presupuesto presentado.

*Artículo 8.*– Composición de la Junta Calificadora y procedimiento de resolución.

1.– Tras el examen de la solicitud y documentación presentada se constituirá una Junta Calificadora, integrada por el Director de Deportes, que actuará como Presidente de la misma, y dos técnicos de dicha área designados por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, uno de los cuales actuará como Secretario. La composición de la Junta Calificadora se hará pública en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Dicha Junta Calificadora emitirá propuesta de resolución motivada, en base a los criterios de adjudicación establecidos, que elevará al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

3.– La Junta Calificadora podrá elevar propuesta en la que, por falta de calidad o de cualquier otro requisito exigido en las solicitudes presentadas, no se apruebe ningún programa o actividad subvencionable, o no se agota la dotación presupuestaria máxima contemplada en esta Orden.

4.– El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista de la propuesta formulada, dictará Resolución en la que se determinará la cuantía total de las ayudas.

5.– El plazo máximo para la notificación de la resolución de las solicitudes será de 4 meses, a contar desde el día de la finalización del plazo de presentación de las solicitudes. Transcurrido el plazo máximo sin haber recaído resolución, ésta se entenderá desestimada, a los efectos previstos en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sin perjuicio de la obligación que dicha Ley impone a la Administración de resolver expresamente.

6.– No obstante lo dispuesto en el párrafo precedente, cuando fuere de aplicación lo previsto en el artículo 6 de la presente Orden, el plazo para resolver se suspenderá por el tiempo que aquel trámite requiera, en función de la recepción de la notificación y del plazo para su contestación.

7.– La Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes será notificada individualmente a cada uno de los interesados y será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, a efectos de general conocimiento.

*Artículo 9.*– Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación de la concesión de la ayuda, las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Diru-laguntza aurrekontuan xedatutako gastuak ordaintzeko erabiltzea, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpenari jarraiki.

c) Deialdi honen pentzutan lortutako diru-laguntzen inguruan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dioten informazioa ematea.

d) Katalogo, foileto, kartel, argazki eta beste material grafiko zein soinuzkoetan argi eta garbi utziko da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak babesa eman duela. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, hala badagokio, beharrezko euskarri eta jarraibideak emango ditu.

e) Jarduera aurkezteko egiten diren ekitaldi publikoetara Kirol Zuzendaritza gonbidatzea.

f) Diruz lagundutako jarduerek edo programek ordaindu beharreko zerbitzu edo produkturik eskainiz gero, entitate onuradunak abantailak, ekonomikoak bereziki, emango dizkie Gazte-txartela dutenei.

*10. artikulua.–* Diru-laguntzen ordainketa.

1.– Diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

a) Lehenengoa bi hilabeteko epean egingo da gehienez, eta emandako laguntzaren %70 ordainduko da. Epe hori diru-laguntza eman dela adierazteko ebazpena ematen denean hasiko da zenbatzen.

b) Bigarrenean gainerako guztia ordainduko da, diruz lagundutako jarduerak egin ostean eta emandako diru-laguntzaren zenbateko osoa behar bezala justifikatu eta gero.

2.– Aurreko paragrafoan esandakoa gorabehera, gauzatutako jarduera edo programen kasuan, diru-laguntza osoa batera ordain daiteke, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpen baten ondoren. Horretarako, programa edo jarduera gauzatu dela egiaztatzeko dokumentuak erantsiko zaizkio eskaerari eta inguruabar hori agindu honen 12. artikuluaren arabera justifikatuko da.

*11. artikulua.–* Programa kudeatzeko organo eskuduna.

1.– Agindu honetako deialdia kudeatzea Kirol Zuzendaritzari dagokio.

2.– Kirol Zuzendaritzak diruz lagundutako jardueren gaineko informazioa eskatzen badu, erakunde onuradunek informazio hori eman beharko diote.

*12. artikulua.–* Diru-laguntza justifikatu eta likidatzea.

b) La subvención deberá destinarse a financiar los gastos contemplados en el presupuesto presentado, de acuerdo con la Resolución de concesión del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto a las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

d) Deberá dejarse constancia clara y visible en los catálogos, folletos, carteles, fotografías y demás material gráfico o sonoro que difundan de la existencia del patrocinio del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. A tal efecto, el propio Departamento también facilitará, en su caso, los oportunos soportes e instrucciones.

e) Convocar a la Dirección de Deportes a los actos públicos que se realicen para la presentación de la actividad.

f) La entidad beneficiaria ofrecerá a los/las poseedores/as del carné Gazte-txartela, ventajas, fundamentalmente económicas, si la actividad o programa subvencionada ofrece algún tipo de producto o servicio de pago.

*Artículo 10.–* Pago de la subvención.

1.– Las subvenciones se abonarán en dos pagos:

a) El primero, por un 70% de la ayuda concedida, en un plazo máximo de dos meses desde la fecha de la Resolución reconociendo la ayuda.

b) El segundo pago, por la cantidad restante, una vez que, realizado el programa o la actividad subvencionada, se justifique de manera suficiente el importe total de la subvención concedida.

2.– Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo anterior, se podrá abonar la totalidad de la ayuda a las actividades o programas ya realizados mediante un único pago tras la Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, siempre y cuando a la solicitud se acompañe la documentación que acredite la ejecución del presupuesto del programa o actividad, justificada siempre en los términos que prevé el artículo 12 de esta Orden.

*Artículo 11.–* Órgano competente para la gestión del programa.

1.– La Dirección de Deportes es el órgano competente para la gestión del programa de subvenciones regulado en esta Orden.

2.– Las entidades adjudicatarias estarán obligadas a facilitar a la Dirección de Deportes cuanta información solicite sobre la marcha de ejecución del programa subvencionado.

*Artículo 12.–* Justificación y liquidación de la subvención.

1.– Erakunde onuradunek, hiru hilabeteko epean gehienez (jarduera edo programa amaitu eta biharamunetik zenbatzen hasita), ondoko dokumentuak aurkeztuko dituzte Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzan:

a) Bukatutako jarduera edo programari buruzko memoria xehetua.

b) Diruz lagundutako programaren diru-sarrera eta gastuen balantzea.

c) Diruz lagundutako jardueratik eratorritako gastuen jatorrizko egiaztagiriak edo, bestela, behar bezala konpultsatutako kopiak, diru-laguntza osoa zuritu arte.

d) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak babesturiko jarduerak direla adierazten duten dokumentuak, diru-laguntzaren aldeko ebazpenari jarraiki.

e) Diruz lagundutako jarduera edo programetan, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak erabili direla adierazten duen egiaztagiria.

2.– Aurkeztutako agiriak ikusirik, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak likidazio ebazpena emango du hala badagokio.

*13. artikulua.–* Diru-laguntzak emateko baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero (betiere, helburua bete dela iritziz gero) edo beste edozein erakunde publiko zein pribatutik ere diru-laguntzaren bat jasoz gero, diru-laguntzak esleitzeko emandako ebazpena aldatu egin ahal izango da. Horrelakoetan, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak likidazio-ebazpena emango du, diru-laguntzen zenbatekoak doitzeko.

2.– Dena delakoagatik diruz lagundutako jarduera edo programak ezin badira eskaeran adierazitako moduan gauzatu, egoera hori Kirol Zuzendaritzari jakinaraziko zaio, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordetzak, Kirol Zuzendaritzak hala proposaturik, kasuan kasuko ebazpena eman dezan.

*14. artikulua.–* Ez-betetzeak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 53.1 artikuluan daude zehaztuta ez-betetzeak.

2.– Baldin eta diru-laguntza ematean ezarritako baldintzetatik onuradunak edozein bete gabe uzten badu, jaso dituen zenbatekoak eta kasuan kasuko legezko interesak itzuliko dizkio Euskal Herriko Diruzaintza Na-

1.– Las entidades beneficiarias están obligadas a presentar ante la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes en el plazo de tres meses a contar desde el día siguiente al de la finalización de la actividad o programa, la documentación que a continuación se determina:

a) Memoria detallada del programa o actividad ya finalizada.

b) Balance de ingresos y gastos del programa subvencionado.

c) Justificantes originales de los gastos correspondientes a la actividad subvencionada o, en su caso, copias debidamente compulsadas por una cuantía equivalente a la subvención concedida.

d) Documentación con la expresa mención del patrocinio del Departamento de Cultura de acuerdo con las condiciones establecidas en la resolución de concesión.

e) Documentación acreditativa de la utilización de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca en el desarrollo de la actividad o programa subvencionado.

2.– A la vista de la documentación aportada, el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes procederá a dictar, en su caso, la oportuna Resolución de liquidación.

*Artículo 13.–* Modificación de las condiciones de la subvención.

1.– Toda modificación de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de subvenciones. A estos efectos, la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes dictará la oportuna Resolución de Liquidación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

2.– Si por cualquier motivo, los programas, actividades o acciones subvencionados no pudieran ejecutarse en los términos contemplados en la solicitud, tal situación deberá comunicarse a la Dirección de Deportes al objeto de que, previa propuesta de dicho órgano, la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes dicté la oportuna Resolución.

*Artículo 14.–* Incumplimientos.

1.– Los supuestos de incumplimiento son los establecidos en el artículo 53.1 del Decreto Legislativo 1/1997, de once de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

2.–La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención dará lugar, de conformidad con los términos establecidos en la Decreto

gusiari, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehena.***– Administrazio-bideari amaiera ematen dion agindu honen aurka interesatuek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Kultura sailburuari hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik kontatuta; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

***Bigarrena.***– Agindu hau EHAAn argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 23a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

**Zk-2943**

AGINDUA, 2003ko maiatzaren 14koa, Kultura sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan kokatzen diren arkeologi aztarnategietan esku-hartze baimenduen ondorioz aurkitutako material arkeologiko edota paleontologikoen inbentarioa egiteko diru-laguntzak emateko deialdia egiteko dena, eta gainera, diru-laguntza horien emakida-erregimena finkatzen duena.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak jabari publiko izaera ematen die Euskal Autonomia Erkidegoan aurkitu diren eta interes arkeologiko eta paleontologikoa duten ondasun guztiei. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila egiten du ondasun horien zaintzaren arduradun, eta horrela, era egokian gordeko direla ziurtatzen du. Zentzu horretan, aipatu den legearen 47.3 artikuluak badio sail horren aginpidea dela aztarna horiek zaintzeko zentro edo museoa izendatzea, hain zuzen, aipatu diren ondasunak zentro horietako fondoen parte izatera pasako liratekeelarik. Era berean, 45.4 artikulua irakurriz ondoriozta daiteke sail honen ardura izango dela arkeologi material horien inbentarioei buruzko informazioa osoa izan dadila ziurtatzea.

Aipatu diren 7/1990 Legearen arauak garatzeko, eta EAEn aurkitu diren eta arkeologi eta paleontologi interesa duten ondasunen gordailua, lekualdaketa eta entrega arautzeko dagoen beharra ikusirik, 1999ko urriaren 21ean urriaren 5eko 341/1999 Dekretua sartu zen

Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del siguiente al de su publicación.

***Segunda.***– La presente Orden surtirá efectos desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de abril de 2003.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

**N°-2943**

ORDEN de 14 de mayo de 2003, de la Consejera de Cultura, por la que se convocan subvenciones para el inventariado de los materiales arqueológicos y/o paleontológicos descubiertos, como resultado de la ejecución de intervenciones autorizadas, en yacimientos arqueológicos localizados dentro del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, fijándose el régimen de concesión de las mismas.

La Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, otorga la condición de dominio público a todos los bienes de interés arqueológico y paleontológico descubiertos en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Señala al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco como el encargado de su tutela, asegurando su correcto depósito, y en su artículo 47.3. señala como competencia del mismo la designación del centro o museo en el que se deberán custodiar estos restos, pasando a formar parte de los fondos de los mismos. Igualmente, se puede ver a través de la lectura del artículo 45.4, como este Departamento deberá velar por que sea completa toda la información referida a los inventarios de éstos materiales arqueológicos.

A la vista la necesidad de regulación de las condiciones de depósito, traslado y entrega de los materiales arqueológicos y paleontológicos descubiertos en el ámbito territorial de la CAPV y en desarrollo de los citados preceptos de la Ley 7/1990, el día 21 de octubre de